



Haur Hezkuntzako lehen zikloa Euskadin

Haurreskolak Partzuergoko ikastetxeen
azterketa eta balorazioa

Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundean (ISEI-IVEI) egina

Egileak: Cristina Elorza, Francisco Luna (Didaktika taldea)

Estatistika lana: Mikel Urkijo, Eduardo Ubieta (Metodoen taldea)

2014ko martxoa

AURKIBIDEA

1. ESKOLATZE GOIZTIARRA

- 1.1. Hezkuntza goiztiarraren garrantzia**
- 1.2. Sei urtetik beherako haurren eskolatzea**
- 1.3. Haurreskolak Partzuergoa**

2. IKERKETAREN EZAUGARRIAK

- 2.1. Ikerketaren helburuak**
- 2.2. Ikerlanaren diseinua eta metodologia**
- 2.3. Galdera-sortaren ezaugarriak**
- 2.4. Laginaren ezaugarriak**

3. FAMILIEN EZAUGARRIAK

- 3.1. Ezaugarri sozio-ekonomikoak eta prestakuntzakoak**
- 3.2. Hizkuntzaren aldetiko ezaugarriak**
- 3.3. Jarduerak familiaren ingurunean**

4. HAURRESKOLEN BALORAZIOA

- 4.1. Haurreskolekiko gogobetetze maila**
- 4.2. Haurreskoletako hezkuntza-lanaren balorazioa**
- 4.3. Haurreskolen antolamendu-alderdien, instalazioen eta zerbitzuen balorazioa.**
- 4.4. Familien parte-hartzea eta lankidetzatza**

5. ONDORIOAK


6. BIBLIOGRAFIA ERREFERENTZIAK

1. ESKOLATZE GOIZTIARRA

1. SARRERA

Gaur egungo euskal gizartean, krisialdi ekonomikoa gorabehera eta inguruko autonomia erkidegoetan ez bezala, jaiotza kopurua egonkor mantentzen da, urtean 21.000 jaiotza inguru. Horrela adierazi du Euskadiko Eskola Kontseiluak bere azken txostenean *Hezkuntza Euskadin. 2010-2012 txostena*¹. Txosten horretan Euskadiko hezkuntza sistemaren egoera aztertzen da, eta jaiotza kopuruak 1993tik 2011ra izan duen bilakaera azaltzeko 1.a grafikoa sartu da. Grafikoa aipatutako igoera ikus daiteke.

1.a grafikoa. Jaiotza kopuruaren bilakaera Euskadin. 1993-2011.



Euskadiko Eskola Kontseiluaren *Hezkuntza Euskadin 2010-2012* txostenetik hartua.

Jaiotza kopurua aldagairik nagusia da eskolatze beharrak etorkizunera proiektatzerakoan. Matrikula eskaintza, batez ere adin txikietan, sistemaren etorkizunaren oinarritzko adierazlea da. Gogoratu baino ez dugu egin behar 1993-96 aldian, jaiotza kopururik urrieneko aldian, jaiotako ikasleak orain derrigorrezko hezkuntzaren ondoko etapetan daudela edo unibertsitateko ikasketak egiten hasiak direla. 2008 arte jaiotza kopuruan izan den igoera hurrengo etapetara igaroko da, eta, beraz, ikusiko dugun bezala, hezkuntza goiztiarrerako programa egokiak edukitzeak, hasieratik, kalitateko hezkuntza sistema indartzen laguntzen du.

1.1. Hezkuntza goiztiarraren garrantzia

Zenbait nazioarteko ikerlanek adierazi dute hezkuntza goiztiarrak oso eragin onuragarria duela ikaskuntzan eta gizarteratzean, eta, gainera, ondorio ekonomiko positiboak ekartzen dituela.

¹ Euskadiko Eskola Kontseilua (2013). *Hezkuntza Euskadin. 2010-2012 txostena*. Vitoria-Gasteiz.

- Europako Batzordeak 2009an argitaratutako *Lehen haurtzaroko hezkuntza eta laguntza Europan: desberdintasun soziala eta kulturala murrizteko tresna*² txostenak honela dio:

“Haur hezkuntzak ikaragarri lagun dezake hezkuntza-desberdintasunen aurkako borrokan, baldin eta baldintza batzuk betetzen badira. Laguntza programarik eraginkorrenak bi elementu hauek batzen dituzte: alde batetik, ikastetxeetan gauzatzen den hezkuntza intentsiboa, goiztiarra, haurrengan zentratua, eta bestetik, horrekin batera, gurasoen konpromisoa eta prestakuntza, etxerako hezkuntza-jardueren programazioa eta familientzako laguntza-neurriak”.

- *Doing Better for Children*³edo *Assurer le bien-être des enfants* ELGAren txostenean (ELGAko 30 herrialdetan haurren ongizateari buruz egin den honelako lehen ikerlana, 2009an argitaratua) desberdintasun soziala murrizteko bizitzako hasierako sei urteetan haurrengan diru gehiago inbertitzea proposatzen da, eta bizitza arrakastatsua eta zoriontsua izan dezaten, haurrei, bereziki ahulenei, laguntza ematea.
- ELGAko PISA nazioarteko ikerlanean oinarriturik, *PISA in Focus* dokumentu-sailean argitaratutako *Haur hezkuntza ikasteak eskola-ikasketetako emaitza hobeak lortzea ba ote dakar?*⁴ dokumentuak honela dio:

“Haur hezkuntzaren etekinak nabariak dira eta ia-ia unibertsalak. Haur hezkuntzak on egiten die ikasleei. ELGAko 2009ko PISA ikerlaneko emaitzek erakutsi dute ELGAko ia herrialde guztietan haur hezkuntza ikasi zuten 15 urteko ikasleek haur hezkuntzarik ikasi ez zutenek baino emaitza nabarmenki hobeagoak lortu zituztela. Izan ere, haur hezkuntzan ikasturte bat baino gehiago ikasi zuten eta haur hezkuntzarik ikasi ez zuten ikasleen arteko batez besteko puntuazio-aldea 54 puntukoa izan zen PISAko irakurketaren ebaluazioan, edo eskolatze ofizialean urte oso bateko (39 punturen baliokidea) baino gehiagoko aldea. Haur hezkuntza ikasi zuten ikasle gehienak gizarte-maila altuetakoak baziren ere, ikasketa-emaitzen arteko aldeak mantendu egiten ziren antzeko gizarte-mailetako ikasleak konparatzen zirenean. Maila sozio-ekonomikoa kontuan hartzen denean, haur hezkuntza ikasi zuten ikasleek batez beste ikasi ez zutenek baino 33 puntu gehiago lortu zituzten”.

Ondorio horiek bat datoz Euskadiko Ebaluazio diagnostikoko txostenetan aipatzen direnekin eta baita beste zenbait ebaluazio eta ikerlanekin, hezkuntza goiztiarrak eta haur hezkuntza ikasteak ikasleek ondorengo etapetan lortzen dituzten emaitzetan zer nolako garrantzia eta eragina duten azpimarratzen baitute.

² <http://www.eurydice.org> MEC (2010) Educación y Atención a la Primera Infancia en Europa: un medio para reducir las desigualdades sociales y culturales. Madrid.

³ <http://www.oecd.org/social/family/doingbetterforchildren.htm> eta <http://www.oecd.org/fr/els/famille/assurerlebien-etredesenfants.htm>

⁴ http://www.oecd.org/pisa/pisaproducts/pisainfocus/PiF1_esp_revised.pdf

- Hezkuntzaren ekonomiaren arloan, hezkuntzak hasierako haurtzaroan duen garrantzia aztertzeko pertsonarik egokienetako bat James Heckman Nobel saria da. Bere ikerketa eta ikerlanetan ondorioztatu du, eskuragarri dauden frogen arabera, jaiotzatik bost urte bete arte eskuratutako trebetasun kognitiboek eta ez-kognitiboek hein handi batean helduaroko produktibitatea –eta beraz, etorkizuneko diru-sarrerak– erabakiko dutela. Horrez gain, *"haurrei hasierako haurtzaroan emandako kalitate handiko hezkuntzak euren ahalmenak sustatzen dituztela, eta beraz, desberdintasunari jatorrian aurre egin diezaiokegula"*⁵.

Egia da ez dagoela batasun handirik haurrei eman behar zaien hezkuntzari buruz, eta herrialde bakoitzak familientzako eta haurrentzako bere laguntza-politikak dituela, ELGAko *Family Database*⁶ datu-basean ikus daitekeen bezala. Gure ingurune hurbilean haurren eskolatzea hautatu da, baina beste herrialde batzuetan haurrak dituzten gurasoentzako beste zerbitzu batzuei ematen zaie lehentasuna, edo familiek haurrak zaintzea errazten da, amatasun baimenetarako arau egokiagoen bidez, lan-ordutegi malguagoen bidez edo familientzako diru-laguntza handiagoen bidez.

1.2. Sei urtetik beherako haurren eskolatzea

Autonomia erkidego guztiek eskolatzea hautatu dute argi eta garbi, eta hein batean edo bestean eskolatzeko goiztiarrerako programak bultzatu dira, estaldura-tasa altuak lortu direlarik. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak (MECD) bere *"Adierazleen mapa"*⁷ dokumentuan honela dio 0-3 urteko zikloko eskolatzeko-tasak direla eta: *"1999-00 eta 2009-10 ikasturteen artean eskolatzeko-tasa garbieraren igoera izan da Haur Hezkuntzako lehen zikloari dagozkion adin teorikoetan. Eskolatzeko-tasa 6,1 puntu igo da urte batetik beherako haurren kasuan, 20,8 puntu urte batekoen kasuan eta 28,8 puntu bi urtekoen kasuan. 2009-10 ikasturtean tasa horiek hiru adin horietan % 7,6, % 27,6 eta % 44,8koak izan dira hurrenez hurren"*.

Euskadiren kasua oso berezia da. 90eko hamarkadaren hasieran, Euskadin 3 urteko haurren eskolatzeko-tasa % 100ekoa zenean, Espainiako batez bestekoa % 40koa baino txikiagoa zen. 2011-12 ikasturtean Euskadiko 2 urteko haurren eskolatzeko-tasa % 94koa zen, eta Espainiako batez bestekoa % 50koa; urte bateko haurren eskolatzeko-tasa % 44koa izan zen (Espainiako batez bestekoa, %27,6) eta 0 urtekoena % 24,4koa (Espainiako batez bestekoa, % 7,6). Gainera, Euskadik plaza publikoen eskaintza handiagoa du, adibidez, 0-2 urteko haurren eskolatzeko-tasa handienetan bigarren erkidegoak (Madril) baino bi aldiz handiagoa, ikasle izan daitezkeen haurren kopuruarekiko.


⁵ <http://www.fedeablogs.net/economia/?p=15941>

⁶ <http://www.oecd.org/els/soc/oecdfamilydatabase.htm>

⁷ http://www.mecd.gob.es/inee/sistema-indicadores/mapa-indicadores/Mapa-de-indicadores-2010_11_12.html

1.b grafikoak 0-2 urteko ikasleen eskolatze-tasak 2000-01 eta 2010-11 ikasturteen arteko hamarkadan nolako bilakaera izan duen erakusten du. Ikus daitekeenez, autonomia erkidego ia guztietan tasaren igoera nabaria gertatu da, baina haien arteko aldeak oraindik ere oso handiak dira: tasarik altuenak Euskadi, Madril eta Katalunia lehen tokietan daude, eta tasarik apalenak Extremaduran eta Kanariar Uharteetan izan dira.

**1.b grafikoa. 0-2 urteko haurren eskolatze-tasa garbia.
 (2000/2001 eta 2010/2011 ikasturteetan)**



Fuente: Ministerio de Educación, Cultura y Deporte

Euskadin, 2010 eta 2012 ikasturteen artean lehen zikloko eskolatze-tasa 3,6 puntu igo da, Euskadiko Eskola Kontseiluak *Hezkuntza Euskadin 2010-2012*⁸ txostenean bildutako datuen arabera:

“Guztira, bi urtetik beherako biztanleriaren % 39,1i eman zaio erantzuna, azken bi ikasturteotan 3,6 puntuko igoera gertatu delarik. Igoera batez ere ikastetxe publikoetan gertatu da (3,0 puntu). 0-2 tartean gauzatu den plangintza bakarra Familiei laguntzeko plana 2001-2005 izan da. Plangintza hark tarte horretako biztanleriaren % 40ko estaldura zuen helburutzat duela zazpi urterako, eta helburua orain bete da.”

⁸ Euskadiko Eskola Kontseilua (2013). *Hezkuntza Euskadin. 2010-2012 txostena*. Vitoria-Gasteiz.

0-2 urteko haurren matrikularen bilakaera Euskadi osoan, hezkuntza-sareen arabera.

	2005-06		2007-08		2009-10		2011-12	
	Matrikula	Estaldura (%)	Matrikula	Estaldura (%)	Matrikula	Estaldura(%)	Matrikula	Estaldura (%)
Publikoa	3.605	% 10,9	5.427	% 16,1	6.138	% 17,4	7.116	% 20,4
Pribatua	4.888	% 14,8	5.751	% 17,0	6.357	% 18,1	6.390	% 18,7
Guztira	8.493	% 25,8	11.178	% 33,1	12.495	% 35,5	13.506	% 39,1

Euskadiko Eskola Kontseilua. Hezkuntza Euskadin 2010-2012 txostenetik hartua

EAEko legeriari dagokionez, Haur Hezkuntzako curriculumak finkatzen duen dekretuak (12/2009, urtarilaren 20koa; EHAA 2009-01-30) 3. eta 4. artikuluetan xedatzen duenaren arabera, etapa hori *“borondatezkoa da eta sei ikasturteko iraupena du (...)”* eta bere helburua *“haurren garapen fisiko, intelektual, afektibo eta sozial osoa eta orekatua lortzea da”*.

Plaza publikoen kopurua handitzea bultzatzeko eta *Familiei laguntzeko erakunde arteko I. Planaren* ondorio bezala, 2003ko irailean Haurreskolak Partzuergoa sortu zen. Geroago, *Euskal Autonomia Erkidegoan familiei laguntzeko erakunde arteko III. Planak*⁹ bere bigarren atalburuan honela dio:

“Aurreko mendeko azken hamarkadetan emandako hainbat aldaketa sozialek (emakumearen emantzipazioa, bere laneratzea, erlazio afektibo-sexualen askapena, gutxiengoaren eskubide zibilen zabalketa...) eta bizitza sozialaren konplexutasunak ondorio batzuk eragin dituzte gaur nagusitzen den familia ereduaren. Hartara, gaurko gizartearen puzzle konplexua osatzen duten familia eredu anitzak (nuklearra, guraso bakarrekoa, pertsona bakarrekoa, berriz eratutako kultura artekoak, homoparentalak, e.a) eman dira. Modu paraleloan, sozialki ezarritako funtzioak era autonomoan aurrera eramateko familiaren ahalmenaren garaia bukatu da. Gero eta gehiago existitzen dira sustapena eta laguntza behar dituzten familia sistemak”.

1.3. Haurreskolak Partzuergoa

Aipatutako politika publikoen ondorioz, 0-2 urteko haurren eskola publikoak kudeatzen dituen Haurreskolak Partzuergoa erakunde publikoa sortu zen. 2003. urtetik aurrera Haurreskolak Partzuergoa hazten joan da bai ikastetxe kopuruari dagokionez, baita berdintasunari, irakasleen prestakuntzari eta kalitate-irizpideen bilaketari lotutako ekimenei dagokienez ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko 0-3 urteko haurrentzako Haur Eskolak arautzen zituen 297/2002 Dekretuaz geroztik, zenbait agiri arauemaile izan dira haur txikientzako hezkuntza-eskaintza definitzeko.

Horrez gain, 2003an *Seme-alabak dituzten familiei laguntza emateko erakunde arteko I.*


⁹ http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-docuinfo/es/contenidos/informacion/6199/es_2284/adjuntos/III_plan_familia_def.pdf

*Plana*¹⁰ argitaratu zen. Ekimen hura Eusko Jaurlaritzaren sail batzuk foru-erakunde eta udal-erakunde batzuekin koordinatzetik sortu zen, eta bere helburua *“familiek libreki izan nahi dituzten seme-alabak izan ditzaten ekonomia eta gizarte eta lan mailako eragozpenak gainditzea da”*. Lana eta familia bateratzeko politikaren barruan, lehen planak zenbait neurri proposatzen zituen, hala nola *“Sentsibilizazio neurriak”, “Laguntza ekonomikoak eta fiskalaritzakoak” eta “Familiei laguntzeko zerbitzuak”*. Laguntzeko zerbitzuen artean, planak honako hauek aipatzen zituen: *“0-2 urtekoentzako haurtzaindegia”, “2-3 urtekoentzako haur eskolak” eta “Landa inguru eta udalerrri txikietan 0-3 urtekoentzako haurtzaindegia babestuenak”*.

Hasierako arau haiek argitaratu ondoren, 0-2 urteko haurrentzako ikastetxeak irekitzen hasi ziren herri txikietan, eta askotariko jatorriko haur eskolak Haurreskolak Partzuergoan sartu ziren. Hartara, gaurko egunean, hamar urte pasa ondoren, Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe-sare bat dugu eta udalen parte hartzea ezinbestekoa izan da sarearen hedapenerako.

2014ko urtarrilaren datuen arabera, *“Haurreskolak Partzuergoak 228 haur eskola ditu, 176 udalerritan banaturik. Eskola horiek 8.111 plaza dituzte 0-2 urteko haurrentzat. 2014ko irailean 8.200 plaza eskainiko ditu. Aurtengo ikasturtean Partzuergoak 5.500 haur eskolatzen ditu, eta lan ematen die 1.200 hezitzaileari eta 100 ordezkari. Haurreskolak Partzuergoaren hamar urteko ibilbidean 35.000 inguru haur pasa dira bere ikasgeletatik”*.¹¹

Galdera-sorta egiten ari zen garaian, 2013ko ekainean, 168 udalek akordioak zituzten Haurreskolak Partzuergoarekin (zenbait udal ikastetxe batzuekin). Hain zuzen ere, 93 eskola zeuden irekita Bizkaian, 89 Gipuzkoan eta 45 Araban, guztira 6.239 haur matrikulatuta zeudelarik.



*Haurreskolen kokapena
 eskualdeka
 (udalen kopurua 2014ko
 martxoan)*

¹⁰ http://www.ej-gv.net/familias/familias_c.htm

¹¹ http://ccaa.elpais.com/ccaa/2014/01/22/paisvasco/1390395917_373210.html

Haurreskolak Partzuergoak bere hezkuntza-zerbitzuak lehen haurtzaroko beharrei eta familien beharrei erantzuteko eskaintzen ditu. Ikastetxearen tamainaren arabera eta familien eskarien arabera, sarrerako eta irteerako ordutegi ezberdinak eskaintzen dira. *Haurreskolek* urtean 208 egun erabiltzen dituzte hezkuntza zuzenerako, eta familiak, haurrak ikastetxean ematen dituen orduen kopuruaren arabera, kuota bat ordaintzen dute. Familiak bazkaria dela eta bi aukera dituzte: bazkaria etxetik eraman ala *catering* zerbitzua erabili.

Web gune ofizialak –www.haurreskolak.net– informazio zabala eskaintzen du ikastetxeen kokalekuari buruz, hezkuntza-planteamenduei buruz eta legeari eta arauari buruz. Atal batean ikastetxeak erakusten dira, beste batean berdintasunari dagozkion alderdiak aurkezten dira, eta beste batean askotariko informazioak eskaintzen dira. Gainera, berariazko bi atal daude, bata Lan Eskaintza Publikoari dagokio, eta bestea sarbide mugatuko esparrua da.

2. IKERKETAREN EZAUGARRIAK

2. IKERKETAREN EZAUGARRIAK

2012ko uztailean Haurreskolak Partzuergoa eta Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundearen (ISEI-IVEI) arteko lankidetzara erabaki zen. Hasteko familientzako galdera-sorta definitu zen, Haurreskolak Partzuergoko ikastetxeen errealitatearen irudi finkoa izateko asmoz eta ebaluazio-irizpideak edukitzeko asmoz.

2.1. IKERKETAREN HELBURUAK

Ikerketaren helbururik behinena Haurreskolak Partzuergoko ikastetxeen egoera ezagutzea eta familiek ikastetxeetan egindako lanaz duten iritzia jasotzea da.

Ikerketa honetan lortutako emaitzetan oinarriturik, ekintza berriak definitu ahal izango dira, ikastetxe-sare bezala irizpide berriak finkatu eta, baita ere, hiru urtetik beherako ikasleekin eta familiekin egiten den hezkuntza-lana hobetzeko iradokizunak jaso ahal izango dira.

Ikerketa honen helburu zehatzak honako hauek dira:

- Seme-alabak *haurreskoletan* dituzten familien zenbait ezaugarri ezagutzea.
- Familiek *haurreskoletako* zerbitzuaz egiten duten balorazioa jasotzea.
- Haurreskolak Partzuergoko ikastetxeen kalitatea ebaluatzea.

2.2. IKERLANAREN DISEINUA ETA METODOLOGIA

Familientzako galdera-sorta idazteko, Haurreskolak Partzuergoak 2009an eta 2010ean familiekin eta udalekin erabili ziren inkestak ekarri zituen. Gogobetetze-inkesta haiek Naiara Berastegi UPV/EHUko irakasleak egin zituen, eta oso abiapuntu interesgarria izan ziren.

ISEI-IVEIk sortu zenetik familientzako, ikasleentzako eta zuzendaritza taldeentzako inkestak egin izan ditu, nazioarteko eta estatu mailako ebaluazioetan eta gure autonomia erkidego barruko ebaluazioetan parte hartzearen ondorioz. Oraingo honetan, tresna bezala 2013ko apirilean eta maiatzean Lehen Hezkuntzako 4. mailan egin zen ebaluazio diagnostikoan erabilitako familientzako galdera-sorta hartu zen kontuan.

Aipatutako galdera-sortez gain, hezkuntza-programa batzuetako ebaluazio-tresnak kontsultatu ziren, eta Haur Hezkuntzan egindako ikerlan eta ikerketa batzuk aztertu ziren:

- Hezkuntza Ministerioak egindako *Evaluación de la educación infantil en España – Informe del estudio piloto 2007* ikerketa pilotua¹².
- Bartzelonako Udalaren *Ja tenim un fill* programaren ebaluazioa (*Estudi avaluatiu del programa maternoinfantil “Ja tenim un fill”*¹³, Direcció de Planificació Educativa, 2001).

¹² Ministerio de Educación, Política social y Deporte (2008). *Evaluación de la educación infantil en España. Informe del estudio piloto 2007*. Madrid.

- Horrez gain, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasunaren ikuspuntua sartzeko asmoz, Institut Català de les Dones elkartearen “*Estadístiques sota sospita. Proposta de nous indicadors des de l'experiència femenina*”¹⁴ (Generalitat de Catalunya, 2006) txostena aztertu zen.

Galdera-sortaren bukaerako diseinua finkatzeko (Ikus 1 Eranskina) zenbait bilera egin ziren Haurreskolak Partzuergoko eta ISEI-IVEIko kideen artean, eta 2012ko urrian Vicenç Arnaiz lehen haurtzaroko hezkuntzako adituari aholkua eskatu eta harekin bilera bat egin zen.

Galdera-sorta Interneten bidez bete zen. ISEI-IVEIko Metodoen Taldeak aplikazio informatiko bat diseinatu eta abian jarri zuen, eta Haurreskolak Partzuergoko ikastetxeetako ikasle bakoitzari "erabiltzaile"-izena eta bi pasahitz eman zitzaizkion. Hala, haur bakoitzaren guraso bat edo biak sar zitezkeen galdera-sortara. Aplikazio informatikoak aukera ematen zuen galdera-sortan aurrera joateko, atzera joateko eta galderak erantzun gabe uzteko.

Haurreskolak Partzuergoak, ikastetxe bakoitzeko hezitzaileen bidez, familiei kodeak eta URL helbideak helarazteko ardura hartu zuen. ISEI-IVEIk bere aldetik aplikazio informatikorako eta datuen ondorengo trataerarako sarbidea zuen, eta prozesu osoaren isilpekotasuna bermatzeko ardura hartu zuen.

2.3. GALDERA-SORTAREN EZAUGARRIAK

Lankidetza prozesuaren emaitza gisa, 24 galdera zituen galdera-sorta egin zen. Galderak bost atal hauetan banaturik daude:

- **Familien profila.** Atalik luzeena da hau, hainbat daturi buruzko galderak sartzen baitira: jaiotekua, jaioteguna, gurasoen lanbidea eta ikasketa-maila, etxearen ezaugarriak, familiararen kide kopurua, etxeko hizkuntza, familian gauzatzen diren jarduerak eta abar. Prestakuntzari buruzko galdera ireki bat ere badago.
- **Haurreskoletako instalazioak eta zerbitzuak.** Atal honetan 15 alderdiren balorazioa eskatzen da (*desegokia, ez oso egokia, nahiko egokia, oso egokia* eskala batean), adibidez, espazioak, ordutegiak, baliabideak, segurtasuna eta abar.
- **Parte hartzea eta laguntza.** Atal hau *haurreskolen* ohiko funtzionamenduaren inguruko 11 galderak osatzen dute, hala nola talde bilerak, elkarriketa pertsonalak, materialen trukea, jardueretan parte hartzea, eguneroko informazioa eta abar. Erantzun itxia eskatzen da: *bai* ala *ez*.
- **Hezkuntza-jarduera.** Atal honetan hezkuntzaren eta antolamenduaren zenbait alderdi sartzen dira. Lehenengoen artean gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasunaren inguruko gaiak, haurren garapenaren ingurukoak eta behar pertsonalei erantzunak aipatzen dira. Antolamenduari dagokionez, egokitze-prozesuari, bilere, txostenei eta abarrei buruzko iritziak eskatzen dira.

¹³ Xesca Grauk Emakundek antolatutako “*Coeducar en los primeros años*” jardunaldian emandako materiala. 2001eko irailaren 7. Vitoria-Gasteiz.


¹⁴ http://www20.gencat.cat/docs/icdones/serveis/docs/publicacions_eines07.pdf

- **Balorazio orokorra.** Galdera-sorta atal honek ixten du hiru galderarekin. Lehenengo biak gogobetetze mailari buruzkoak dira, eta azken galderan lau lerroko tarte ireki bat uzten da.

Galdera askoren atal batzuetan erantzun itxia eskatzen da, bitan izan ezik, erantzun irekikoak baitira. Izan ere, galdera-sortaren bukaerako tarte irekian 739 pertsonak idatzi zuten zerbait, iradokizun, balorazio, zorian edo eskariren bat.

2.4. BILDUTAKO LAGINAREN DESKRIBAPENA

Populazio osoaren % 26,7k erantzun dio galdera-sortari. Hain zuzen ere, 2013ko ekainean guztira 6.239 ikasle zeuden matrikulaturik *haurreskoletan*, eta 1.664 familiak erantzun zioten galdera-sortari. Kontuan izan behar da haur bakoitzak bi gurasok erabil zitzaketen bi kode zituela. Izan ere, 112 erantzun erabiltzaile izen bera eta bi kodeak erabiliz sartu ziren bikoteei zegozkien.



- Lurralde bakoitzeko parte hartzeari dagokionez, Bizkaian 87 ikastetxetako familiek erantzun dute, Gipuzkoan 85 ikastetxetakoek eta Araban 43 ikastetxetakoek. 12 *haurreskoletan* familia batek ere ez du erantzun, ezta kodeak erabili ere (Bizkaiko 6, Gipuzkoako 4 eta Arabako 2).
- Familia gehienek, % 62,9k, gaztelania erabili dute galdera-sortari erantzuteko. Familien heren batek baino apur bat gehiagok, % 37k, euskara erabili dute

- Erantzun dutenen lagina batez ere amek osatzen dute. Erantzun dutenen % 77,5 amak dira eta % 22, aitaak. L
- Bildutako laginean ikasleen sexua nahiko orekatuta dago, % 47,5 neskak eta % 52,5 mutilak baitira.
- 739 pertsonak iritzi edo iruzkin bat idatzi dute galdera-sortako azken galdera irekian.

3. FAMILIEN EZAUGARRIAK

3. FAMILIEN EZAUGARRIAK

3.1. EZAUGARRI SOZIO-EKONOMIKOAK ETA PRESTAKUNTZAKOAK

Familiantzako galdera-sortan gurasoen ezaugarri pertsonalei lotutako zenbait galdera egiten dira (adibidez, jaioturtea, jaiolekua eta ikasketa-maila). Horrekin batera, etxean dituzten baliabideei buruzko hainbat datu eskatzen dira (adibidez, liburuak edo gela kopurua).

Bildutako informazioari esker, lagineko familien profil orokorra egin ahal izan da, eta datuak urte horretan Lehen Hezkuntzan egin zen Ebaluazio diagnostikoan bildutako datuekin konpara daitezke. Gurasoen maila sozio-ekonomikoa ezaguturik, hezkuntza-erakundeek euren esku-hartzea ikasleen garapena hobetzeko egokitu dezakete.

Jarraian, gai horien inguruko aspekturik azpimarragarrienak azaltzen dira.

- Lagineko seme-alaben % 95,5 2011n (% 59,5) eta 2012an (% 36) jaioak dira. Ama gehienak (% 59,6) 1975 eta 1980. urteen artean jaioak direla ikus daiteke; 33 eta 38 urte bitartekoak dira. Denbora tarte horretan jaiotako aiten ehunekoa (% 51,5) txikiagoa da. Ehuneko hori 15 puntu handiagoa da 1973 eta 1974 urteak kontuan hartzen badira.
- Jaiolekuari dagokionez, haur gehienak (% 98) Euskadin jaioak dira. Gure erkidegoan jaiotako aiten ehunekoa (% 91,3) eta amen ehunekoa (% 89) txikiagoa da.
- Lagineko haurren % 1,2 etorkinak direla esan daiteke: 3 haur atzerrian jaioak dira (hots, lehen belaunaldiko etorkinak), eta 17 haurren gurasoak atzerrian jaioak dira (bigarren belaunaldiko etorkinak). Ez dugu ezagutzen *haurreskoletan* matrikulatutako populazio etorkinaren ehunekoa. 2013ko Ebaluazio diagnostikoan jasotako datuen arabera, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen % 5,5 etorkinak ziren eta, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan, ikasleen % 8,3. Oraingo laginetik lortutako datua txikiagoa da. Euskadiko Eskola Kontseiluak (2010-2012 Txostena) esandakoaren arabera, ikasle etorkinen presentzia murriztu egin da eta ikasle etorkinak Oinarrizko Hezkuntzako (Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) ikasle guztien % 7,6 dira.
- Familiaren ikasketa-mailarik altuena aztertzerakoan, aiten % 87,7k eta amen % 96,5ek derrigorrezko hezkuntzaren ondoko ikasketak dituztela ikusten da. Aiten artean Batxilergoko ikasketak dituztenen ehunekoa eta unibertsitateko ikasketak dituztenena oso antzekoak dira. Hala ere, amen kasuan, unibertsitateko ikasketak dituztenen ehunekoa (% 69) Batxilergoko edo LHko ikasketak dituztela dioten ehunekoa baino bi aldiz handiagoa da, ondorengo taula honetan ikus daitekeen bezala:

Aitaren eta amaren ikasketa-mailarik altuena

	K aita	Baliiodunak %	K ama	Baliiodunak %
Oinarrizkoak bukatu gabe	22	1,4	4	0,2
Derrigorrezkoak bukatuta	172	10,9	53	3,25
Batzilergoa, Lanbide H...	725	46,0	453	27,7
Unibertsitatekoak	657	41,7	1.123	68,8
Baliiodunak	1.576	100,0	1.633	100,0

- Gurasoen lanbideari dagokionez, langabezian dauden amen ehunekoa (% 10,7) aiten ehunekoa (% 6) baino handiagoa dela ikus daiteke, eta, baita ere, aiten eta amen lanbidea maila ertain-altukoa dela, hau da, taularen goiko aldekoa lanbide kualifikatuei dagokiena.
- Familia edo elkarbizitza-unitateari dagokionez, ikasle gehienak (% 95,7) *bi gurasoekin* bizi dira; gutxi batzuk (% 1,9) *amarekin bakarrik* bizi dira. Guraso bakarreko familien kopurua oso txikia dela ikusten da, ikasleen % 92,7 hiru edo lau kidek osatutako familietan bizi baitira, hots, gurasoak eta seme-alaba bat edo bi.
- Familiak dituen baliabideei dagokienez, datuak falta dira haurreskoletan matrikulatutako populazioaren irudi orokorra edukitzeko. Jarraian, galdera-sortari erantzun dioten familiek emandako erantzunak azaltzen dira.
- Taulan ehunekoak adierazten dituzten bi zutabe daude: lehen zutabea (HA) Haurreskolak Partzuergoko galdera-sortari erantzun dioten familien ehunekoa adierazten da; bigarren zutabea (ED-LH), konparaziorako elementu gisa, 2013ko Ebaluazio diagnostikoan Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek emandako erantzunetatik atera diren ehunekoak azaltzen dira. Bi galdera ez ziren sartu Ebaluazio diagnostikoan; gainera, "Egunkaria egunero" erosteari dagokion galdera ez da konparagarria, Ebaluazio diagnostikoan *paperean edo Interneten* irakurtzeko aukerak ematen baitziren.

Azken urteko egoerak eta baliabideak etxean	HA	ED-LH
Ipuinak, haur literatura formatu ezberdinetan (liburu, CD, DVD...)	% 94,9	-
Interneteko konexioa	% 94,1	% 90,8
Haurrak bere gela du	% 76,7	% 66,6
Entziklopediak, hiztegiak edo kontsulta-liburuak	% 74,3	% 87,2
Azken urtean, familia hotel, kanpin, landetxe edo apartamentu batera joan da egun batzuk pasatzera.	% 66,9	% 64,4
Aldizkari espezializatuak edo teknikoak	% 49,8	% 45,9
Literatura klasikoko liburuak	% 40,1	% 48,9
Etxeke lanak familiakoa ez den pertsona batek egiten ditu	% 19,7	% 22,3
Egunkaria egunero	% 19,5	% 60,2
Altzari egokituak, protesiak (premia bereziak)	% 5,2	-

Ikus daitekeenez, *haurreskoletako* lagineko familien ezaugarri batzuk eta ED ebaluazioko galdera-sortetatik lortutakoak antzerakoak dira, eta lagungarriak dira seme-alabak dituzten Euskadiko familien profil bateratua egiteko. Adibidez, Interneteko konexioa % 94k eta % 90,8k dute, hurrenez hurren; baina EUSTATen datuen arabera "*etxean zerbitzu hori duten familiak milioi erdi baino apur bat gehiago dira, % 58,4*" ("Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak. EAE 2012"¹⁵).

- Lagineko familien etxeetan dituzten objektu eta espazio zehatzei dagokienez, etxe gehienak egoki horniturik daudela ikusten da.

	Bat ere ez	Bat	Bi	Hiru	Lau edo gehiago
Ordenagailuak	% 1,8	% 49,2	% 36,7	% 9,5	% 2,9
Autoak	% 1,0	% 30,3	% 65,2	% 2,9	% 0,6
Bainugelak	% 0,3	% 33,1	% 58,8	% 6,7	% 1,0
Logelak	% 0,1	% 0,8	% 27,5	% 64,2	% 7,4

Aurreko atalean etxeko baliabideekin gertatu den bezala, atal honetan ere antzeko ehunekoak gertatzen dira *haurreskoletako* laginean eta Lehen Hezkuntzako Ebaluazio diagnostikoko populazioan. Antzeko emaitzen adibide gisa, "Zenbat ordenagailu etxean?" galderari dagozkion ehunekoak aipa daitezke. Ebaluazio diagnostikoan erantzunak honela banatu ziren: *Bat ere ez* % 3,1; *Bat* % 37,1; *Bi* % 34,0; *Hiru* % 17,1; *Lau edo gehiago* % 8,7. Ebaluazio diagnostikoari dagokion azken zutabeko ehuneko handiagoa galderako lau elementuetan antzeman daiteke: Ordenagailuak % 8,7 (*haurreskoletan* % 2,9); Autoak % 3,7 (*haurreskoletan* % 0,6); Bainugelak % 3,8 (*haurreskoletan* % 1); eta Logelak % 19,2 (*haurreskoletan* % 7,4)..

- Etxean dituzten liburuen kopurua ondorengo taulan biltzen da, hemen ere 2013ko Ebaluazio diagnostikoko ehunekoekin konparaturik. Ikus daitekeenez, ehunekoak oso antzekoak dira bi inkestetan.

	0-50	50-100	100-200	200-500	>500
Liburuak etxean	% 39,8	% 26,3	% 17,0	% 12,2	% 4,7
ED-LH	% 23,0	% 24,7	% 21,9	% 19,6	% 10,8

15

http://www.eustat.es/elementos/ele0008900/ti_Mas_de_medio_millon_de_hogares_de_la_CA_de_Euskadi_tiene_conexion_a_Internet_en_2012/not0008979_c.html#axzz2mJnoAW6x

3.2. HIZKUNTZAREN ALDETIKO EZAUGARRIAK

Familiantzako galdera-sortan galdera batzuk egiten dira familian gehien erabiltzen den hizkuntzari buruz, seme-alabekiko harremanetan gehien erabiltzen den hizkuntzari buruz eta bikotearen harreman-hizkuntza nagusiari buruz.

- Etxeko hizkuntzari dagokionez, inkestari erantzun dioten pertsonen % 59k dio seme-alabarekin beti edo ia beti euskara erabiltzen duela; seme-alabarekin beti edo ia beti gaztelania erabiltzen duela % 38,3k erantzun du. Bikotekidearekin erabiltzen duen hizkuntzaz galdetzean, gaztelaniaren presentzia % 70,7ra igotzen da. Familiaren ohiko hizkuntza (afariak, jolasak, telebista eta abar) gaztelania da etxean % 57,2an. Aipatzeko modukoa da bikotekidearekin gaztelania erabiltzen duten pertsonen % 32k seme-alabekin euskara erabiltzen duela.
- 2013ko Ebaluazio diagnostikoan hizkuntzen erabilerari buruz lortutako datuak baditugu, baina antzekoak izan arren ez dira konparagarriak. Errolda mailako ebaluazio hartan ikasleek erantzuten zioten galdera-sortari. Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen % 23,12k erantzun zuen etxean beti edo ia beti euskara erabiltzen zuela; DBHko 2. mailako ikasleen % 19,8k erantzun zuen gauza bera.

3.3. FAMILIAREN INGURUNeko JARDUERAK

Galdera-sortako galdera batzuk gurasoek seme-alabekiko izaten dituzten jokabideei buruzkoak dira, eta beste batzuk eguneroko jarduerari eta egoerei buruzkoak. Galdera horiek guztiek lotura dute harreman-estilo pertsonalekin eta haurren garapenean eragina duten ohiko jokabideekin.

Familia-harremanei eta inguruneari dagokienez, galdera-sortan aipatzen diren jarduera guztiak maiztasun handiz gauzatzen dira lagineko familietan. Jarduera horiek sarritan aipatzen dira atxikimendu-harremanak aztertzen dituzten ikerlanetan. Garrantzitsuak dira nahitasun-harremanak sortzeko eta haurren garapena bai familiaren ingurunean bai eskolaren ingurunean sustatzeko. Gema Paniaguak eta Jesús Palacios¹⁶ honela diote:

“Nahitasun-emozioa 6 hilabete inguruko haurretan agertzen da. Ez da berez agertzen, bat batean, bi elementu gurutzatzearen ondorioz baizik: alde batetik, heltze biologikoa, eta bestetik, haurraren zainketan gertatzen diren aurretiazko elkarreraginak, hala nola haurraren estimulazioa, garbiketa, jaten ematea, berarekiko kontaktuaz gozatzea”.

- Aipatu beharrekoa da familien % 73k erantzun duela seme-alabari ipuinak *sarri samar* eta *askotan* kontatzen edo irakurtzen dizkiola. Irakurketaren inguruko egoerak garrantzi

¹⁶ Paniagua, G eta Palacios, J (2005): *Educación Infantil, respuesta educativa a la diversidad*, Alianza Editorial, Madrid, pp. 89-90.

handikoak dira bizitzaren hasierako urteetatik. Ondorengo taulan *sarri samar* eta *askotan* erantzunak elkartu dira ikuspegi orokorra izan ahal izateko:

	Sarri samar+ askotan
Irribarrea egin eta haurrari irribarrea itzuli	% 99,8
Haurrari aurpegira begiratu eta argi hitz egin	% 98,0
Haurra laztandu eta emeki masajea eman	% 96,3
Musika entzun, kantatu	% 92,5
Haurrari ipuinak kontatu eta irakurri	% 72,8

Erantzunak sexuaren arabera aztertzen badira, hau da, aita edo ama erantzuten duen kontuan izanik, ez da ezberdintasunik ikusten. Adibidez, hasierako bi jokabideetan (*irribarrea egin*, *aurpegira begira hitz egin*) ehunekoak antzekoak dira, eta gainontzeko hiru jokabideetan amen ehunekoa aiena baino apur bat handiagoa da: 4,8 puntu handiagoa *laztandu eta masajea eman*; 9,6 puntu handiagoa *ipuinak kontatu eta irakurri*; eta 7,4 puntu handiagoa *musika eta kantak*.

Hala ere, azterketaren arreta *askotan* erantzun dutenengan jartzen badugu, alde nabariak antzematen dira. Ondorengo taulan erantzunen ehunekoak sexuaren arabera azaltzen dira, eta bertan ikus daiteke jokabide horiek "*askotan*" izaten duten amen ehunekoa aiena baino handiagoa dela.

	Askotan ama	Askotan aita	Askotan guztira	Aldea ama-aita
Irribarrea egin eta haurrari irribarrea itzuli	% 77,4	% 62,9	% 74,2	14,5
Haurrari aurpegira begiratu eta argi hitz egin	% 93,6	% 81,7	% 91,0	11,9
Haurra laztandu eta emeki masajea eman	% 77,8	% 61,5	% 74,1	16,3
Musika entzun, kantatu	% 44,4	% 34,6	% 42,2	9,8
Haurrari ipuinak kontatu eta irakurri	% 65,3	% 51,5	% 62,2	13,8

- Era berean, inkestari erantzun dion pertsonak seme-alabarekin egin behar diren lanak egin ohi dituen galdetzean, gehiengo batek *askotan* erantzun du, eta horrek adieraziko luke pertsona horien parte-hartze handia haurraren zainketan. Ondorengo taulan lan horiei dagozkien *sarri samar* eta *askotan* erantzunen ehunekoak elkarturik azaltzen dira:

	Nahikoa + askotan
Garbitu, haur-oihalak aldatu...	% 97,7
Seme/alabari jaten eman	% 95,3
Haurra bainatu	% 92,0
Pediatraren kontsultara joan	% 91,7
Seme/alabari loak hartzen lagundu	% 89,7

Lan horiek haurraren bizitzako eguneroko uneei loturik daude, bai etxean bai *haurreskolan*, eta oso aukera egokia ematen dute haurrek pertsona helduekin

harremanak izateko, elkarreragiteko eta hitz egiteko. Oso garrantzitsua da, alde batetik, familiek ezagutu dezaten hezitzaileek elikadurari, garbitasunari, loari eta jolasari lotutako egoerei zer nolako garrantzia ematen dieten; eta beste aldetik, familiaren ingurunean haurren zainketan bai emakumezkoek bai gizonezkoek parte hartu dezaten. Emakundek egindako ikerlan baten arabera¹⁷:

“Emakumeek beren gain hartzean garai batean ia eskusiboki gizonenak ziren ardurak, genero-rolen eta familia-balioen berrikuspen sakona abiarazi da. Hala ere, eta etxeko zereginen ekitatezko banaketari buruzko jarrera positiboa oso hedatua egon arren –bigarren kapituluari ikusi bezala– gure iturrien iritziz banaketa hori *desorekatua da, zalantzarik gabe*. Gizonen zati bat etxeko eremuan gehiago parte hartzen ari da, *batez ere haurren zainketan*, eta ez hainbeste *etxea mantentzeko lanetan*...”

Erantzunak sexuaren arabera aztertuz gero, *sarri samar* eta *askotan* batera harturik, amen eta aiten erantzunen arteko aldeak ez dira oso handiak (6,3 puntu, haur-oihalak; 9,6 puntu, bainatzea; 9,2 puntu, loak hartzea), *jaten eman* lanean (amen ehunekoa 12,7 puntu handiagoa da, *sarri samar* eta *askotan* batera harturik) eta *pediatraren kontsultara joan* lanean (17,5 puntu handiagoa) izan ezik.

Aurreko atalean familiaren harremanekin eta ingurunearekin gertatu den bezala, amen eta aiten parte-hartzearen arteko aldea handiagoa da arreta *askotan* erantzunetan jartzen dugunean. Ondorengo taulan ikus daitekeen bezala, sexuen arteko aldea handia da *pediatraren kontsultara joan* (amen ehunekoa 38,3 puntu handiagoa) edo *haurrari jaten eman* (29,2 puntu handiagoa) lanetan, baina aldea txikiagoa da *haurra bainatu* lanaren kasuan (*askotan* erantzun duten amen ehunekoa 17,5 puntu handiagoa).

	Askotan ama	Askotan aita	Askotan guztira	Aldea ama-aita
Garbitu, haur-oihalak aldatu...	% 80,3	% 54,0	% 74,5	26,3
Seme/alabari jaten eman	% 75,1	% 45,9	% 68,6	29,2
Haurra bainatu	% 75,3	% 58,6	% 71,6	16,7
Pediatraren kontsultara joan	% 82,1	% 43,9	% 73,7	38,3
Seme/alabari loak hartzen lagundu	% 75,9	% 48,9	% 69,9	27,0


- Emakumezkoek eta gizonezkoek haurren zainketan duten parte-hartzeari dagokionez, Euskal Estatistika Erakundeak (EUSTAT) emandako datuek ere baieztatzen dute emakumezkoen presentzia handiagoa. Adibidez, *Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkesta (LBU) (2012)*¹⁸egin ondoren, honela dio:

¹⁷ Emakunde (2012): *Erantzukidetasuna, balioak eta generoa*, Vitoria-Gasteiz, 164. or.

¹⁸ http://www.eustat.es/elementos/ele0010500/not0010573_c.pdf

“EAEEn emakume okupatuak seme-alabak eta mendeko pertsonak zaintzen egunean ematen duten ordu kopurua gizonak ematen dutena baino ia bi aldiz handiagoa da (...). Etxetik kanpo lan egiten duten emakumeek 4,6 ordu pasatzen dituzte egunean 15 urte baino gutxiagoko seme-alabekikoak egiten; gizonak 2,9 ordu, Eustaten datuen arabera. (...).Emakume okupatuak erdiak (% 47,9) soldatako lanean emandako denboraz gain 5 ordu edo gehiago pasatzen ditu egunean adin txikikoak zaintzen. (...). Bestalde, gizon okupatuak erdiak (%49,1ek) seme-alaben zaintzetan bi ordu edo gutxiago pasatzen ditu. (...) EAEko emakume eta gizon okupatuak artean etxeko lanetan banaketan aldea oraindik handiagoa da: 10 gizonetatik bederatzik (%91,5) bi ordu edo gutxiago ematen ditu; emakumeen laurdenak (%27,9) hiru ordu edo gehiago”.

3.3.a grafikoa. Lanalditik kanpo beste zeregin batzuetan egunean emandako ordu kopurua. Gizonak eta emakumeak.



ISEI-IVEIk EUSTATen datuetan oinarriturik.

- *Nolako gaien inguruan izan nahi zenuke informazio edo prestakuntza maila altuagoa?* galderari erantzunez, familien ehuneko altuak askotariko gaiekiko interesa adierazi du. Gainera, 62 pertsonak inkestan aipatzen ez diren gaiak erantsi dituzte.

Gairik aipatuena *Hezkidetza* izan da, horrekiko interesa inkestari erantzun dioten erdiak baino gehiagok adierazi baitu, amen % 60,7k eta aiten % 49,7k hain zuzen ere. Dirudienez, haurren hazkuntzari lotutako gaiei buruzko prestakuntzari beste leku batzuetan ematen zaie erantzuna (adibidez, *garbitasuna* eta *loa* gaiek interes txikiagoa piztu dute).

Era berean, gai batzuei buruzko informazioa eta prestakuntza jasotzeko guraso kopuru handi batek konfiantza osoa du hezkuntza-eskaintzan (*osasuna*, % 53,5; *elikadura*, % 50,1; *esfinterren kontrola*, % 39,3). Gai bat edo beste bat hautatzen dutenen adinen arteko alderik ez dago. Jarraian proposatutako gaiak eta baieztatu erantzunen ehunekoak azaltzen dira:

Garbitasuna	% 18,0
Loa	% 29,4
Esfinterrak	% 39,3
Elikadura	% 50,1
Osasuna	% 53,5
Hezkidetza	% 58,4

Gai nagusi horiei aurreko atalean aipatutako aspektuei dagozkien beste gai batzuk erantsi beharko litzaizkieke, haurren garapenerako garrantzi handikoak, hala nola musika, ipuinak, hizkuntza, masajeak eta abar. Prestakuntza berriro aipatuko da txosten honen 4. atalean.

4. HAURRESKOLEN BALORAZIOA

4.1. HAURRESKOLEKIKO GOGOBETETZE MAILA

Ondorengo taula eta grafikoetan lagineko familiek adierazitako gogobetetze mailaren emaitzak azaltzen dira.


Hain zuzen ere, lehenengo taulan galdera honetako balorazio-gradu bakoitza hautatu duten pertsonen kopurua azaltzen da. "Galdutako" erantzunei buruzko datuak ere, hots, galdera erantzun gabe utzi duten pertsonen dagozkienak, sartu dira. Ikus daitekeenez, erantzunak gehiengo handi batean oso positiboak dira, eta *haurreskolekiko* gogobetetze maila altua adierazten dute.

Haurreskolan jasotako zerbitzuarekiko gogobetetze maila

	K	Ehunekoa	Baliodunak (%)
Oso baxua	11	0,7	0,7
Baxua	15	0,9	0,9
Altua	364	21,9	22,5
Oso altua	1.227	73,7	75,9
Baliodunak	1.617	97,2	100,0
Galdutakoak	47	2,8	
Guztira	1.664	100,0	

Hurrengo grafikoan galdera-sortari erantzun dioten iritziak ehunekoetan adierazten dira. Gogobetetze maila *oso baxua* edo *baxua* dela dioten erantzunak ez dira % 1era heltzen. Familiarik gehienek gogobetetze maila *altua* edo *oso altua* adierazi dute. Datu horiek ikuspegi orokor oso positiboa ematen dute, eta ikuspegi hori gurasoek atal batzuetan adierazten dituzten desadostasunekin eta iradokizunekin osatu daiteke.

4.1.a grafikoa. Haurreskolan jasotako zerbitzuarekiko gogobetetze maila, ehunekoetan



ISEI-IVEIk egina.


Haurreskola hori gomendatuko zenuke? galderak lotura handia du aurreko galderarekin (gogobetetze maila), eta ikus daitekeenez, emaitzak koherenteak dira. Oraingo galdera honetan inkesta bete duen populazioaren % 98k esan du seme-alabaren haurreskola gomendatuko lukeela, eta ehuneko hori gogobetetze maila *altua* edo *oso altua* adierazi dutenen ehunekoaren (% 98,4) antzekoa da.

Ondorengo taula eta grafikoan erantzun kopurua jasotzen da aukera bakoitzak izan duen ehunekoarekin batera:

Haurreskola hau gomendatuko zenuke?

	K	Ehunekoa	Baliadunak (%)
Bai	1.577	94,8	98,1
Ez	31	1,9	1,9
Baliadunak	1.608	96,6	100,0
Galdutakoak	56	3,4	
Guztira	1.664	100,0	

4.1.b grafikoa. Haurreskola hau gomendatuko zenuke?, ehunekoetan.



4.2. HAURRESKOLETAKO HEZKUNTZA-JARDUERAREN BALORAZIOA

Familia gehienek aitortzen dute *haurreskolaren* balioa, haurren aurrerapena erantzun ia guztietan adierazten baitute.

Galdera-sortan hurrek *haurreskolaren* eraginez zer nolako aurrerapena izan duten galdetzen da. "*Garapena eta ikaskuntza*" atalean % 98,2k erantzun dute hurrek aurreratzen dutela, "*Harreman pertsonalak eta bizikidetza*" atalean, % 98,8k, eta "*Lotura afektiboak eta segurtasun pertsonala*" atalean, % 96,75ek. Azken atal horretan 52 pertsonak erantzun negatiboa eman dute (lagineko familien % 3).

Horrez gain, galdera-sortan hezkuntzaren inguruko zazpi alderdi aurkezten dira, eta familiei alderdi horiei buruzko iritzia adieraz dezaten eskatzen zaie. Ondorengo taulan ikus daiteke alderdi horietako asko oso ongi baloraturik daudela, zenbait kasutan emaitzak xehetasun handiagoarekin aztertu beharko liratekeen arren, agian ikastetxe bakoitzean.

HAURRESKOLAREN HEZKUNTZA-ALDERDIEN BALORAZIOA

	Nahiko + asko	Inoiz ez + gutxi
Seme/alabak tratatu pertsonalizatua jasotzen du, bere ezaugarrien eta beharren arabera.	% 96,3	% 3,7
<i>Haurreskolako</i> jarduerak aurretiaz egindako hezkuntza-plan bati lotuak dira.	% 93,8	% 6,2
Sexuaren aldetiko bereizkeria eragozten da jardueretan jolasetan, apainetan, testuetan...	% 89,9	% 10,2
Komunikazio-bideak erabiltzen dira, adibidez " <i>agenda ibiltaria</i> " edo informazio-orriak.	% 88,9	% 11,1
<i>Haurreskolako</i> jardueretan emakumearen gizarte-balorazioa sustatzen da	% 87,7	% 12,3
Haurren eguneroko gauzez " <i>haurreskola-familia</i> " hitz egiteko uneak daude.	% 85,3	% 14,7
Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko prestakuntza, informazioa edo materialak jaso dituzue.	% 24,8	% 75,2

Lehenengo eta behin azpimarratu behar da familia ia gehienek (% 96,3) erantzun dutela Haurreskolan "*Seme/alabak sarri samar edo askotan tratatu pertsonalizatua jasotzen duela, bere ezaugarrien eta beharren arabera*", zalantzarik gabe adin horretako haurren hezkuntza-prozesuaren giltzarrietako bat. Horrez gain, aipatu behar da gehiengo handi batek (% 93,8) haurren hezkuntza-jarduerak aurretiaz planifikatzea positibotzat hartzen dutela.

Badirudi gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari dagozkion edukiak, Haurreskolak Partzurergoak bere web gunean aipatzen dituenak, hein batean ikastetxeetako eguneroko bizitzan ere islatzen direla, familien % 25ek *gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko prestakuntza, informazioa edo materialak jaso dituela* adierazi baitu. Aurreko atalean prestakuntzari buruzko gaiekin aipatu den bezala, *Hezikidetza* familiek gehien eskatzen duten gaietako bat da(lagineko familien % 58).

Atal honetan berdintasunari lotutako hiru aspektu sartu dira: *Sexuaren aldetiko bereizkeria eragozten da, Emakumearen gizarte-balorazioa sustatzen da eta Berdintasunari buruzko prestakuntza, informazioa edo materialak jaso dituzue*. Interesgarria da familiek Haurreskolak Partzuergoak bere agirietan berdintasunari ematen dion garrantziaz nolako iritzia duten ezagutzea. Hain zuzen ere, partzuergoaren web gunean, atal berezi batean, bere "Berdintasunarekiko eginbidea", bere "Berdintasunari buruzko diagnosia" eta 2010eko maiatzean onartutako bere "Berdintasun plana"¹⁹ ezagutzera ematen ditu.

4.3. HAURRESKOLETAKO ANTOLAMENDU-ALDERDIEN, INSTALAZIOEN ETA ZERBITZUEN BALORAZIOA

Galdera-sortan zazpi **antolamendu-alderdi** orokor aipatzen dira, eta familiek balorazio ona eman diete. Ondorengo taulan *egokiak* edo *oso egokiak* direla uste dutenen ehunekoak eta *desegokiak* edo *ez oso egokiak* direla uste dutenen ehunekoak azaltzen dira handienetik txikienera ordenaturik.

ANTOLAMENDU-ALDERDIEN BALORAZIOA

	Nahiko egokia + oso egokia %	Bat ere egokia + ez oso egokia %
Zure seme-alabaren prozesuari buruz jasotako idatzizko informeak	96,2	3,8
Ate irekien eguna	93,8	6,2
Haurreskolako administrazio-zerbitzuak	93,3	6,7
Zure seme-alabaren sartze-prozesua eta egokitzaipena	89,8	10,2
Zure seme-alabaren hezitzaileekin egindako elkarriketak	88,7	11,3
Formazioa eta orientazioa ondoko aspektuetan: elikadura, jolasa, loa, errutinak...	87,4	12,6
Hezitzaile eta beste familiekin egindako bileren maiztasuna	78,5	21,5

Txosten idatziak (% 96) eta *ate irekietako jardunaldiak* (% 94) alderdirik baloratuena izan dira. Baloraziorik txarrenea izan duen alderdia *bileren maiztasuna* da, erantzun negatiboak % 21,5 izan baitira.

Gainera, galdera-sortan *haurreskolako instalazioei* eta beste zerbitzu batzuei lotutako **15 alderdi** sartu dira. *Bat ere egokia, ez oso egokia, nahiko egokia* eta *oso egokia* direla erantzun zitekeen. Planteatutako 15 alderdietatik 7k oso balorazio ona izan dute (% 90 baino gehiago), eta 6k % 80 baino gehiago. Baloraziorik ezkorrena *catering zerbitzua egotea* eta

¹⁹ http://www.haurreskolak.net/plan_igualdad

catering zerbitzuaren prezioa alderdiek izan dute. *Partekatutako espazioak* eta *kanpoko espazioak* alderdiek ere balorazio ezkorragoa izan dutela ikus daiteke.

Alderdi horietako batzuen ardura zuzena Haurreskolak Partzuergoarena da, eta beste batzuen udalena, adibidez, *esparruaren segurtasun maila*.

Ondorengo tauletan erantzunen ehunekoak azaltzen dira:

Balorazio positiboa izan duten alderdiak (erantzunen % 90 baino gehiago)	Nahiko egokia + oso egokia
Altzariak eta bestelako baliabideak	% 96,9
Garbiketa eta mantentze zerbitzuak	% 96,6
Gaixotasunei erantzuteko protokoloak eta familiarekiko harremana	% 95,1
Familiak bere seme-alabaren bazkaria eramateko aukera	% 92,9
Tokiaren segurtasun maila	% 92,8
Haurreskolaren eraikuntza	% 92,2
Ordutegiak: sarrera, irteera, bazkaria, siesta	% 91,7

Balorazio positiboa izan duten alderdiak (erantzunen % 90 baino gutxiago)	Nahiko egokia + oso egokia
Funtzionamendu-orduen kopurua	% 89,7
Instalazioak, espazioen tamaina eta banaketa	% 89,6
Ahalmen urritasuna duten haurren edo senideen sarbidea	% 89,0
Funtzionamendu-egunen kopurua	% 87,3
Espazio partekatuak (eskitokiak, iragarki-taula, sarrera, aulkitxoaren gunea...)	% 86,3
Patioa edo jolastokia	% 80,4

Balorazio positiboa izan duten alderdiak (erantzunen % 70 baino gutxiago)	Nahiko egokia + oso egokia
Catering zerbitzua egotea	% 69,7
Catering zerbitzuaren prezioa	% 52,4

4.4. FAMILIEN PARTE-HARTZEA ETA LANKIDETZA

*“Starting Strong III. A Quality Toolbox for Early Childhood Education and Care”*²⁰ (OECD 2012) liburuan ELGak garrantzi handia ematen dio familiek eskolako bizitzan duten parte-hartzeari. Honela dio liburuak:

Gurasoen eta hezitzaile taldearen arteko informazio-trukeak "ongi egiten denean, ikastetxearen kalitatea hobetu dezake, eta, baita ere, etxean ama edo aita gisa jardutea eta etxean dagoen ikasteko giroa (219. or., ISEI-IVEIren itzulpena).

²⁰ OECD (2012): Starting strong III. A Quality Toolbox for Early Childhood Education and Care. OECD Publishing.

Gurasoek *haurreskolako* bizitzan duten presentzia eta lankidetzari dagokionez, deialdietan guraso ia guztiek parte hartzen dutela ikusten da, eta ehuneko txiki batek bakarrik adierazten du hezkuntza-dinamikan parte hartzeko aukerak urriak direla.

Ondorengo taulan atalik baloratuenak ikus daitezke:

Baiezko balorazioa izan duten alderdiak (erantzunen % 80 baino gehiago)	Bai
Badakizu haurreskolan egunero zer gertatzen den, zer egiten den	% 84,3
Seme/alabaren taldeko bileretara joaten zara	% 90,3
Hezitzailearekiko elkarrizketetara joaten zara	% 91,2
Hezitzailearekin hitz egiteko aukera egunero izaten duzu	% 93,7
Haurreskolan eskatzen dizkizuten argazkiak, liburuak edo bestelako materialak ekartzen dituzu	% 94,2
Hezitzaileak zure seme/alabaren beharrak ezagutzen eta errespetatzen ditu	% 99,0

Baloraziorik altuena izan duen alderdia (% 99) *Hezitzaileak zure seme-alabaren beharrak ezagutzen eta errespetatzen ditu* da, eta horrek berriro adierazten du *haurreskoletako* hezkuntza-lanaren aitorpena. Ehuneko altu hori koherentea da 4.2 atalean aipatutako *Seme/alabak tratu pertsonalizatua jasotzen du, bere ezaugarrien eta beharren arabera* alderdian erantzun baikorrek % 96,3 izatearekin.

Familien parte-hartzeari lotutako beste alderdi batzuetan balorazio baikorren ehunekoa txikiagoa izan da. Ondorengo taulan azaltzen dira.

Baiezko balorazioa izan duten alderdiak (erantzunen % 80 baino gutxiago)	Bai
Haurreskolak zure interes kulturalak jasotzen ditu	% 78,6
Haurreskolak haur-hezkuntzari buruzko materialak ematen dizkizu (dokumentuak, bideoak, musika)	% 65,7
Haurreskolak 0-2 urteko adinari buruzko prestakuntza edo informazioa ematen dizu	% 63,7
Kultura edo laguntza ekintzetan parte hartzen duzu (musika, irteerak, liburutegia, jaiak, ospakizunak)	% 60,9
Haurreskolan kultura edo laguntza ekintzetan parte hartzeko aukera eman dizute	% 58,6

Ez dugu ahaztu behar lagineko familien erdia baino gehiago ados dagoela bost baieztapen horiekin. Hala eta guztiz ere, inkesta bete duen populazioaren atal batek (% 20-40) bere desadostasuna adierazi duenez, *haurreskoletako* ekintza berrietarako abiapuntu gisa har daitezke. Familiek eskolako bizitzan parte hartzearen aldeko jarrera dutela ikusten da, eta prestakuntza jasotzeko eta askotariko jardueretan parte hartzeko bideak eskatzen dituztela. Familien parte-hartzeak berekin ekarri ohi du ikaskuntzen hobekuntza, aniztasunarekin begirune handiagoa duen bizikidetzeta eta ikastetxea gizarteratze-agente bezala definitzea.

5. ONDORIOAK

5 - ONDORIOAK

- Euskadin jaiotza kopurua egonkor mantentzen da, urtean 21.000 jaiotza inguruan. 2011-2012 ikasturtean 2 urtetik beherako haurren % 40 ikastetxeetan matrikulaturik zegoen.
- 2013ko ekainean 6.239 haur zeuden matrikulaturik *haurreskoletan*. Haur horien gurasoen arteko 1.664k (% 27) Interneten bidez erantzun zioten ISEI-IVEIk prestatutako galdera-sortari. % 37k euskaraz erantzun zuen eta % 63k, gaztelaniaz. Erantzunen % 78 ikasleen amenak dira eta % 22, aitenak.
- Amen % 60ren adina eta aiten % 51,5ena 33 eta 38 urte bitartekoa da. Gehienak Euskadin jaioak dira eta derrigorrezko hezkuntzaren ondoko ikasketak dituzte (amen % 96,5 eta aiten % 87,7).
- Galdera-sortari erantzun dioten gurasoek *haurreskolen* balorazio oso positiboa egin dute. % 98,4k gogobetetze maila *altua* edo *oso altua* adierazi du, eta % 98k bere *haurreskola* gomendatuko lukeela adierazi du.
- Familiek oso balorazio ona egin dute *haurreskoletako* zenbait hezkuntza-alderdiren inguruan. Adibidez, % 96,3k adierazi du arreta pertsonalizatua *egokia* edo *oso egokia* dela: % 89k *haurreskolaren* eta familiaren arteko komunikazio-bideak; eta % 85,3k elkarriketarako denbora.
- Familiek hezkuntza-alderdi batzuk kontutan hartu edo hobetu daitezkeela adierazi dute. Adibidez, % 75,2k adierazi du gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko prestakuntza edo materialak *inoiz ere ez* edo *gutxitan* jaso dituela.
- Familiek *haurreskolen* antolamendu-alderdi batzuei oso balorazio ona eman diete. Esate baterako % 96,2ren iritziz txosten idatziak *egokiak* edo *oso egokiak* dira; % 94ren iritziz, ate irekietako jardunaldiak; % 93,3ren iritziz, administrazio-zerbitzuak.
- Baloraziorik ezkorrena izan duen antolamendu-alderdia talde-bileren maiztasuna izan da, % 21,5ek ez *oso egokia* edo *desegokia* dela erantzun baitu.
- Instalazioei dagozkien alderdiek ere oso balorazio ona izan dute. Esate baterako, % 90en baino gehiagoren iritziz *egokiak* edo *oso egokiak* dira: altzariak, garbitasuna, gaixotasunei aurre egiteko protokoloak, bazkaria etxetik eramateko aukera, segurtasuna, eraikuntza eta ordutegiak.
- Erantzunen % 80an baino gehiagotan eta % 90ean baino gutxiagotan *egokitzen* edo *oso egokitzen* hartu diren alderdiak honako hauek izan dira: funtzionamendu-orduen kopurua, instalazioak, sarbidea, funtzionamendu-egunen kopurua, espazio partekatuak eta jolastokia.

- Instalazio eta antolamendu-alderdiak kasu guztietan erantzun baikorrak % 50 baino gehiago izan dituzte. Baloraziorik positiboena izan duena hau izan da: *altzariak eta bestelako baliabideak (96,9%)* eta baloraziorik ezkorrena izan duena hau izan da: *catering zerbitzuaren prezioa (% 52,4)*.
- Familien parte-hartzeari dagokionez, erantzunen % 80 baino gehiago baiezkotak izan dira galdera hauetan: *badakizu egunero zer gertatzen den? (% 84,3)*, *bileretara joaten zara? (% 90,3)*, *hezitzailearekin egunero hitz egiteko aukera izaten duzu? (% 93,7)*, *materialak ekartzen dituzu? (% 94,2)* eta *hezitzaileak haurraren beharrak errespetatzen ditu? (% 99,0)*.
- Parte-hartzeari dagokionez, baiezko erantzunak % 80 baino gutxiago izan dira galdera hauetan: *haurreskolak zure interes kulturalak jasotzen ditu? (% 78,6)*, *haurreskolak materialak ematen dizkizu? (% 65,7)*, *informazioa ematen dizu? (% 64)*, *laguntza ekintzetan parte hartzen duzu? (% 61)* eta *jardueretan parte hartzeko aukera eman dizute? (% 58,6)*.
- Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren gaiak oso presentzia handia du *haurreskoletako* agirietan eta web gunean, eta presentzia handiagoa izan dezake ikastetxeetako eguneroko jardueretan.

6. BIBLIOGRAFIA ERREFERENTZIAK

- Ajuntament de Barcelona (2001): *Estudi avaluatiu del programa maternoinfantil "Ja tenim un fill"*, Barcelona.
- Comisión Europea – Eurydice (2009): *Educación y Atención a la Primera Infancia en Europa: un medio para reducir las desigualdades sociales y culturales*, Bruselas.
- Euskadiko Eskola Kontseilua (2010): *Hezkuntza Euskadin. 2006-2008 txostena*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua, Vitoria-Gasteiz.
- Euskadiko Eskola Kontseilua (2012): *Hezkuntza Euskadin, 2008-2010*, Vitoria-Gasteiz.
- Euskadiko Eskola Kontseilua (2013): *Hezkuntza Euskadin., 2010-2012*, Vitoria-Gasteiz.
- 12/2009 DEKRETUA, urtarrilaren 20koa, Haur Hezkuntzako curriculum zehaztu, eta Euskal Autonomia Erkidegoan ikaskuntza horiek ezartzen dituen. (EHAA 2009-01-30).
<http://www.euskadi.net/bopv2/datos/2009/01/0900469a.pdf>
- Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila (2011): *Familiei laguntzeko erakunde arteko III Plana*.
http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-docuinfo/es/contenidos/informacion/6199/es_2284/adjuntos/III_plan_familia_def.pdf
- Emakunde (2012): *Erantzukidetasuna, balioak eta generoa*, Vitoria-Gasteiz.
- EUSTAT. *Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkesta (LBU) 2012*.
- EUSTAT. *Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak. EAE 2012- 2012/05/25eko prentsa oharra*.
- Gema Paniagua y Jesús Palacios (2005): *Educación Infantil, respuesta educativa a la diversidad*. Alianza Editorial, Madrid.
- Generalitat de Catalunya, Institut Català de les Dones (2006): *Estadístiques sota sospita. Proposta de nous indicadors des de l'experiència femenina*, Barcelona.
- Eusako Jaurlaritza (2003): *Seme/labak dituzten familiei laguntzeko erakunde arteko lehen plana*. http://www.ej-gv.net/familias/familias_c.htm
- Ministerio de Educación, Cultura y Deporte (2010): *Mapa de indicadores*
http://www.mecd.gob.es/inee/sistema-indicadores/mapa-indicadores/Mapa-de-indicadores-2010_11_12.html
- Ministerio de Educación, Cultura y Deporte (2010): *Educación y Atención a la Primera Infancia en Europa: un medio para reducir las desigualdades sociales y culturales*, Madrid.
- Ministerio de Educación, Política Social y Deporte (2008): *Evaluación de la educación infantil en España – Informe del estudio piloto 2007*. Madrid.

- OCDE (2011): *¿La asistencia a educación infantil se traduce en mejores resultados en el aprendizaje escolar?* http://www.oecd.org/pisa/pisaproducts/pisainfocus/PiF1_esp_revised.pdf
- OECD (2012): *Starting Strong III. A Quality Toolbox for Early Childhood Education and Care.*
- OECD (2012): *Family database.* <http://www.oecd.org/els/soc/oecdfamilydatabase.htm>
- OECD (2009): *Doing better for Children.*
<http://www.oecd.org/social/family/doingbetterforchildren.htm>

1 ERANSKINA



HAURRESKOLETAN SEME-ALABAK DITUZTEN FAMILIEI ZUZENDUTAKO GALDESORTA

Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Euskal Erakundea, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako Saileko zerbitzua da. ISEI-IVEI-aren helburu bat ez Unibertsitateko Euskal Heziketa Sistemaren ebaluazio orokorra egitea da. ISEI-IVEIri buruzko informazio gehiago www.isei-ivei.net orrialdean aurkitu dezakezu.

Galdeketa honekin Haurreskolak Partzuergoko zentroen kalitatea ebaluatu nahi dugu baita ezaugarri batzuk eta familien iritziak ezagutzea ere. Galdesorta honetako galdera batzuk aurreko ebaluazioetan erabili dira eta hau lagungarria da iritzien konparaketa egiteko.

Jasotako datu guztiek hobetzera lagunduko digute eta ebaluazioaren ardura duen taldeak **isilpeko** eran tratatuko ditu. Dakizunez gero, haur bakoitzak 2 kode ditu bere familiak modu **anonimoaz** erantzun dezan. Mesedez, esan nork erantzuten dion galdeketa honi.

"Ama-aita" atalak alda ditzakezu, galdesorta gaurko familia mota desberdinetara egokitze asmoz (guraso bakarrak, sexu bereko bikoteak, eta abar). Nork beteko du galdeketa hau?

Ama

☐

Aita

☐

Beste senide
bat edo tutorea

☐

1.- FAMILIEN PROFILA

1. Zure seme-alaba noiz jaio zen?

Eguna	Hilabetea	Urtea
--	--	----

2. Zure seme-alabaren sexua

Neska	1
Mutila	2

3. Jaiotze-lekua (Mesedez, zutabe bakoitzerako **aukera bat bakarrik** markatu)

- A. Euskal Autonomi Erkidegoan
- B. Beste Erkidego batean
- C. Atzerrian

Aita	Ama	Seme-Alaba
1	1	1
2	2	2
3	3	3

4. Jaiotze data

	Eguna	Hilabetea	Urtea
Ama	--	--	----
Aita	--	--	----

5. Zein da une honetan gurasoen lanbidea?

Aita

Ama

(Mesedez, bakoitzerako **aukera bat bakarrik** markatu)

A.- Enpresaburua (10 langile baino gehiagorekin), enpresa publiko eta pribatuetako zuzendari eta gerentea, Administrazio Publikoko Gobernu Organoak, Goi-mailako teknikaria (Ingeniaritza, Zuzenbidea, Medikuntza, Arkitektura, Farmazia...), Armadako goi-mailako ofiziala.		
B.- Enpresako zuzendaria, Goi-mailako funtzionarioa, Administrazio Publikoko zerbitzaburua, Irakaslea, Unitate teknikoetako burua, Goi-mailako teknikaria (Gizarte Zientzietan, Giza Zientzietan...), Ikuskatzaile eta kontrolatzailea.		
C.- Merkataria eta enpresa txikiko burua (5 eta 10 langile artean), Analista eta programatzaile informatikoa, Kazetaria, Erdi-mailako teknikaria (Ingeniaritza Teknikoak, Erizaintza, Arkitektura Teknikoa, Irakaskuntza...), Artista.		
D.- Merkataria eta enpresa txikiko burua (5 langile baino gutxiago), Erosketetako burua, Agente komertziala, Babes eta segurtasuneko langile publikoa, Tailerreko burua, Kiroletako profesionala.		
E.- Administraria, Bulegoko langilea, Komertziala, Armadako ofizialordea, Familia-enpresako jabea, Babes eta segurtasuneko langile pribatua, Ibilgailuen mekanikaria.		
F.- Saltokiko saltzailea, Teknikari laguntzailea, Langileburua, Gidaria, Langile espezializatua, Iturgina, Berogailu-teknikaria.		
G.- Industria edo zerbitzuetako langilea, Arotza, Igeltseroa, Pintorea, Artisaua, Peoi espezialistak, Instalazioetako operadorea, Muntaketa-kateetako makinetako operadorea.		
H.- Nekazaritza-langilea, Lorezaina, Arrantzalea, Eraikuntzako peoia, Industria-peoia, Meatzaritzako peoia.		
I.- Kualifikatu gabeko beste langile batzuk, Etxeko zerbitzuetako langileak, Jornalaria, Atezaina, Zaintza pertsonaletako lanak, Etxeko lanak.		
J.- Orain erretiratuta dago.		
K.- Orain langabezian dago.		

6. Zein da gurasoen ikasketen maila altuena?
(Mesedez, bakoitzerako aukera bat bakarrik markatu)

	Aita	Ama
Oinarrizko ikasketak bukatu gabe.....	1	1
Derrigorrezko ikasketak bukatuta (OHO, DBH).....	2	2
Batxilergoa, Lanbide heziketa edo baliokidea.....	3	3
Unibertsitate ikasketak.....	4	4

7. ¿Norekin bizi da haurra normalean? (Mesedez, markatu behar dituzun erantzun guztiak)

Aita-amarekin.....	1
Aitarekin bakarrik	1
Amarekin bakarrik.....	1
Neba-arrebekin.....	1
Beste familiarteko batzuekin (aitona- amonarekin, osaba-izebarekin...).	1
Beste egoera batean (familia edo abegi-etxean...).	1

8. Guztira zenbat pertsona bizi zarete etxean, haurra barne? (Mesedez, aukera bat bakarrik markatu)

Bi.....	1
Hiru.....	2
Lau.....	3
Bost.....	4
Sei edo gehiago.....	5

9. Hurrengo objektu eta espazioetatik, zenbat daude zure etxean? (Mesedez, ilara bakoitzean lauki bat markatu)

	Bat ere ez	Bat	Bi	Hiru	Lau edo gehiago
A. Zenbat ordenagailu.	A	B	C	D	E
B. Zenbat auto.....	A	B	C	D	E
C. Zenbat bainugela.....	A	B	C	D	E
D. Zenbat logela.....	A	B	C	D	E

10. Adieraz ezazu zure etxean azkeneko urtean egoera hauek gertatu diren: (Mesedez, markatu behar dituzun erantzun guztiak)

Etxeko lanak familiakoa ez den pertsona batek egiten ditu.....	1
Azken urtean, familia hotel, camping, nekazaritza etxea edo apartamentu batera joan da egun batzuetan	1
Haurrak logela bat dauka berarentzat bakarrik.....	1
Mediku kontsultetara nik eraman dut nire seme-alaba.....	1

11. Zenbat liburu daude, gutxi gorabehera, zure etxean? (Apalategiko metro batean 50 liburu sartzen dira gutxi gorabehera. Ez itzazu aldizkariak edo testuliburuak kontuan hartu). (Mesedez, aukera bat bakarrik markatu)

0tik 50era.....	1
50etik 100era.....	2
100etik 200era.....	3
200etik 500era.....	4
500 baino gehiago.....	5

12. Adieraz ezazu zure etxean dauden jarraian aipatzen diren baliabideak edo espazioak: (Mesedez, markatu behar dituzun laukiak)

Interneteko konexioa.....	1
Entziklopediak, hiztegiak edo kontsulta liburuak	1
Literatura klasikoko liburuak (Axular, Cervantes, Shakespeare).....	1
Eguneroko prentsa	1
Aldizkari espezializatuak edo teknikoak	1
Ipuinak, haur literatura formatu desberdinetan (liburua, DVD, CD...)	1
Altzariak egokituak, protesiak (premia bereziak)	1

13. Hizkuntzak etxean. (Mesedez, ilara bakoitzean lauki bat markatu)

	Beti edo gehienetan euskaraz	Beti edo gehienetan gaztelaniaz	Beste hizkuntza batez beti edo gehienetan
Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zure bikotearekin?	1	2	3
Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zure seme-alabarekin?	1	2	3
Zein hizkuntzatan hitz egiten du zure bikoteak zure seme-alabarekin?	1	2	3
Zein da gehien erabiltzen den hizkuntza familian? (bazkarian, afarian, jokuetan, aisialdian, telebistan, Interneten...)	1	2	3

14. Ondoko ekintzak zein maiztasunarekin egiten dituzu zure seme-alabarekin? (Mesedez, ilara bakoitzean lauki bat markatu)

	Inoiz ez	Gutxitan	Nahikoa	Askotan
Aurpegiari begiratzuz argitasunez hitz egitea.	1	2	3	4
Irribarre egitea eta irribarre haurrari itzultzea	1	2	3	4
Laztantea eta gozotasunez masajeak ematea	1	2	3	4

Ipuinak irakurtzea eta kontatzea.	1	2	3	4
Musika entzutea, abestea.	1	2	3	4

15. Zure seme-alabaren garapen prozesuari buruz, zer gaitaz informazio edo formazio gehiago izatea gustatuko litzazuke? : (Mesedez, markatu behar dituzun laukiak)

A. Elikagaia.....	1
B. Higienea.....	1
C. Ordutegia eta loa.....	1
D. Esfinter kontrola.....	1
E. Hezkidetza.....	1
F. Osasuna.....	1
G....	1

16. Hurrengo ohiko jarduerak, zuk egiten dituzu?

	Inoiz ez	Gutxitan	Nahikoa	Askotan
A. Seme edo alabari janaria eman.	1	2	3	4
B. Higienea, fardelak aldatu...	1	2	3	4
C. Seme edo alaba bainatu.	1	2	3	4
D. Mediku kontsultetara eraman seme-alaba.	1	2	3	4
E. Seme edo alaba lokartzen lagundu.	1	2	3	4

2.- INSTALAZIOAK ETA HAURRESKOLAKO ZERBITZUAK

17. Balora itzazu ondoko atalak:

(Mesedez, **ilara bakoitzean lauki bat markatu**)

	Bat ere egokia	Ez oso egokia	Nahiko egokia	Oso egokia
A. Haurreskolako eraikuntza.	1	2	3	4
B. Instalazioak, bere tamaina eta espazioen banaketa	1	2	3	4
C. Patioa edo jolas tokia.	1	2	3	4
D. Altzariak eta bestelako baliabideak.	1	2	3	4
E. Ordutegiak: sarrera, irteera, bazkaria, siesta.	1	2	3	4
F. Funtzionamendu ordu kopurua.	1	2	3	4
G. Funtzionamendu egun kopurua	1	2	3	4
H. Garbiketa eta mantenu zerbitzuak.	1	2	3	4
I. Tokiaren segurtasun maila.	1	2	3	4
J. Ezgaitasuna duten haur edo familientzako irisgarritasuna	1	2	3	4
K. Gaixotasunen aurrean erantzuteko protokoloak eta familiekiko harremana.	1	2	3	4
L. Catering zerbitzua egotea	1	2	3	4
M. Catering zerbitzuaren prezioa.	1	2	3	4
N. Familia bakoitzak bere seme-alabaren janaria eramateko aukera izatea.	1	2	3	4
O. Partekatutako espazioak (esekitokiak, iragarki taula, sarrera, haurren aulkiak usteko tokia...).	1	2	3	4

3.- PARTE HARTZEA ETA KOLABORAZIOA

18. Esan zure kasuan hurrengo egoerak ematen diren:
(Mesedez, ilara bakoitzean lauki bat markatu)

	Bai	Ez
Zure seme-alabaren gelako bileretara joaten zara?	1	2
Zure seme-alabaren hezitzailearekin biltzen zara elkarrizketak egiteko?	1	2
Haurreskolan antolatutako kultur ekintzetan edo bestelako ekintzetan laguntzeko parte hartzen duzu? (musika, irteerak, liburutegia, jaiak, ospakizunak...)	1	2
Kultur ekintzetan parte hartzeko edo haurreskolan laguntzako aukera eman zaizu?	1	2
Haurreskolan eskatzen dizkizute argazkiak, liburuak edo bestelako materialak eramaten dituzu?	1	2
Haurreskolak haur hezkuntzari buruzko materialak (dokumentuak, bideoak, musika,...) uzten dizkizu?	1	2
Haurreskolak 0-2 adineko haurrekin lotutako gaiei buruzko formazioa edo informazioa ematen dizu?	1	2
Badakizu egun bakoitzean zer egiten den, zer gertatzen den haurreskolan?	1	2
Haurreskolak zure interes kulturalak jasotzen ditu?	1	2
Hezitzaileak zure seme-alabaren beharrak ezagutzen ditu eta errespetatzen ditu?	1	2
Egunero zure seme-alabaren hezitzailearekin hitz egiteko aukera daukazu?	1	2

4.- HEZIKETA ESKU-HARTZEA

19. Uste duzu **zure seme-alabak** ondoko aspektuetan **aurreratu** duela haurreskolari esker? (Mesedez, **ilara bakoitzean lauki bat markatu**)

	Bai	Ez
A. Garapena eta ikaskuntza (motrizitatea, hizkuntzak, autonomia...)	1	2
B. Erlazio pertsonalak eta bizikidetasuna	1	2
C. Atxikimendua eta y segurtasun pertsonala	1	2

20. Balora itzazu, mesedez, **antolakuntzako** hurrengo **aspektu** orokorrak: (Mesedez, **ilara bakoitzean lauki bat markatu**)

	Bat ere egokia	Ez oso egokia	Nahiko egokia	Oso egokia
A. Ate irekien eguna	1	2	3	4
B. Zure seme-alabaren sartze-prozesua eta egokitzapena .	1	2	3	4
C. Hezitzaile eta beste familiekin egindako bileren maiztasuna .	1	2	3	4
D. Zure seme-alabaren hezitzaileekin egindako elkarriketak .	1	2	3	4
E. Zure seme-alabaren prozesuari buruz jasotako idatzizko informeak .	1	2	3	4
F. Formazioa eta orientazioa ondoko aspektuetan: elikadura, jolasa, loa, errutinak...	1	2	3	4
G. Haurreskolako zerbitzu administratiboak	1	2	3	4

21. Haurreskolaren hurrengo heziketa-aspektuak baloratu, mesedez:

(Mesedez, **ilara bakoitzean lauki bat markatu**)

	Inoiz ez	Gutxi	Nahiko	Asko
A. Zure seme-alabak egiten dituen ekintzak eta jolasak, aurreko heziketa-plangintza batekin erlazionatuta daude?	1	2	3	4

B. Zure seme-alabak pertsonalizatutako arreta jasotzen du, bere ezaugarri, behar, gaitasun eta erritmoen arabera?	1	2	3	4
C. Jardueretan, jokoetan, apainketan, testuetan, eta abarretan diskriminazioa sexu-arrazoiagatik saihesten da?	1	2	3	4
D. Jardueretan edo zure seme-alabak parte hartzen duen jokoetan emakumeen balioespen soziala sustatzen da?	1	2	3	4
E. Senideek gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko formazioak, informazioak edo materialik jaso duzue?	1	2	3	4
F. Familia eta haurreskolaren arteko komunikazio bideak erabiltzen dira informazioa trukatzeko (adibidez, agenda ibiltaria edo informazio orriak).	1	2	3	4
G. Denborarik dago haurren familiekin egunerokotasunezko gaiei buruz hitz egiteko?	1	2	3	4

5.- BALORAZIO OROKORRA

22. Orokorrean haurreskolan jasotako zerbitzuarekiko asetasuna.

Oso txarra

Txarra

Ona

Oso ona

1
2
3
4

23. Haurreskola hau gomendatuko zenuke?

Bai.....

Ez.....

1
2

24. Mesedez, iradokizunak edo proposamenak egiteko badituzu, esan iezaguzu,

--

ESKERRIK ASKO ZURE PARTE HARTZEAGATIK